

97. zenb.

XXIX. URTEA  
2021 URTARRILA-EKAINA

ISSN 2530-3287

**Neus Figueras  
Casanovas**

Departament d'Educació.  
Generalitat de Catalunya

[nfiguera@xtec.cat](mailto:nfiguera@xtec.cat)

## Bestelako lankidetzak

# Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren Liburu Osagarria: laburpen txiki bat eta irakaskuntzan eta ebaluazioan izan dezakeen eragina

Artikulu honek Europako Kontseiluaren *Common European Framework of Reference for Languages; Learning, teaching, assessment – Companion Volume* argitalpenaren eduki garrantzitsuenak deskribatzen ditu, eta liburu egiteko jarraitu den prozesua azaltzen; eduki horiek dagokien testuinguruan kokatzen ditu, eta aztertzen du nola eragin dezaketean irakaskuntza- eta ebaluazio-arloetan epe motz, ertain eta luzera. Ingeleseko behin betiko bertsioa 2020an plazaratu zen. Gaztelaniaz eta euskaraz, berriz, 2021ean izango da. *Hizkuntzan ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren Liburu Osagarria* izango du azken horrek izenburu.

### **Gako-hitzak**

Companion Volume, Erreferentzia Markoa, EEMB, Europako Kontseilua, Liburu Osagarria


## 1. TESTUINGURUA

*Common European Framework of Reference for Languages: Learning, teaching, assessment – Companion Volume* dokumentuaren argitalpenaren testuinguruari buruz hitz egiteko, bi ikuspegi ezberdin hartu behar dira kontuan, nahiz eta biak lotuta egon.

Alde batetik, testuinguru makro batean, ikuspegi geopolitikoa hartu behar dugu kontuan, eta pentsatu gaur egungo Europa eta duela 20 urteko Europa oso desberdinak direla ikuspegi sozial, politiko edo ekonomikotik. Ikuspegi geopolitikotik begiratuta, testuinguru makro horrek zuzenean eragin du Europako Kontseiluaren funtzionamenduan eta haren helburuetan gertatutako aldaketetan, zehazki Hizkuntza Politiken atalean; izan ere, aldaketa horiek beharrezkoak dira gure gizarteetan gero eta handiagoa den aniztasun kulturalari eta linguistikoari erantzuteko. Europako Kontseiluaren proiektu eta estrategien mailan izandako aldaketak xehetasunez aztertzen hasi gabe ere, ikusteko

nola ulertzen duen Europako Kontseiluak testuinguru geopolitikoak hizkuntzen hezkuntza duen garrantzia, nahikoa dugu haren webean sartzea, eta, zehazki, behatzea eta irakurtzea nola dagoen eratuta hezkuntza eleanitz eta kulturartekorako baliabideen eta erreferentzien plataformaren diagrama (1. irudia). Eskolaratze-hizkuntzak (*Languages of schooling*) —eta ez atzerriko hizkuntzak XX. mendearen amaieran gertatu zen bezala— diagramaren erdigunean daude, ikaslearen eta eskolan edo ikaskuntza-ingurunean dauden hizkuntza guztien arteko harremana pibotatuz, izan hizkuntza horiek erregionalak, minoritarioak edo minorizatuak edo ikasle migranteenak, izan ikastetxean ikasgai bezala tratatzen den edo diren lehen hizkuntzak, edo beste ikasgai batzuetan erabiltzen direnak (EAHII/CLIL edo EMI testuingurua<sup>1</sup>: matematikak, gizarte-zientziak eta abar) eta atzerrikoak, modernoak zein klasikoak.

1. irudia. *The Platform of resources and references for plurilingual and intercultural education* <sup>2</sup> (Iturria: <https://www.coe.int/en/web/platform-plurilingual-intercultural-language-education>)



Testuinguru horretan, *Europako Erreferentzia Marko Bateratua-Liburu Osagarriaren* orientazioak mantendu egiten ditu 2001ean argitaratutako EEMBan (*Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua: ikaskuntza, irakaskuntza, ebaluazioa*<sup>3</sup>) agertzen diren oinarri kontzeptualak, eta, aldi berean, hizkuntza modernoaren ikaskuntzaren esparrutik harago kokatzen ditu edukiak eta deskriptoreak, eta hizkuntzen irakaskuntza garrantzitsuak diren beste alderdi batzuk jorratzen, batez ere derrigorrezkoak diren eskola-curriculumetan. (*Europako Erreferentzia Marko Bateratua-Liburu Osagarria* aurrerantzean EEMB LO erabiliko dugu).

Bestalde, testuinguru mikroa kontuan hartu behar dugu; horrek zuzeneko lotura du hizkuntzen ikaskuntzarekin, eta balio digu ikusteko nola erabili den eta zer eragin izan duen EEMBa 20 urtetan zehar (2001 ean plazaratu zen), hezkuntza-arloan oro har, eta hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioan zehazki. Izan ere, nahiz eta dokumentuak interes handia piztu zuen Europan eta mundu osoan, eta erreferentzia espplizituak egin diren EEMBaren ikuspegiari eta curriculum, programazio eta egiaztatze-gintzarako definitzen dituen gaitasun-mailei buruz (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2), erreakzio guztiak ez ziren positiboak izan, eta inplementazioa ere ez zen beti modu egokian egin.

Honako hauek izan ziren EEMBari egindako kritikak: dokumentua erabiltzeko zailtasuna, hutsuneak (ez dago aipamenik hizkuntza-jabekuntzaren prozesuari buruz, goiko mailek ez dute deskriptorerik, erreferentzia gutxi daude helburu espezifikoei

<sup>1</sup> Editorearen oharra.

EHAII, Edukien eta Atzerriko Hizkuntzaren Ikaskuntza Integratua; ingelesez CLIL (*Content Language Integrated Learning*).

EMI: *English as a Medium of Instruction*

<sup>2</sup> Hezkuntza eleanitz eta kulturantzerako baliabideen eta erreferentzien plataforma

<sup>3</sup> Editorearen oharra.

Jatorrizko liburua 2001ean eman zen argitara. Euskarazko argitalpena, berriz, 2005eko da.

buruz, material orientagarri gutxi, eta abar), zailtasunak eskola-testuinguruetara eta goi-mailako hezkuntzara egokitzeke, eta, are, hizkuntzen hezkuntza homogeneizatzen saiatzea (Fulcher 2004). Kasu batzuetan, kritikak oinarrituta zeuden (dokumentua erabiltzeko zailtasunak edo deskriptore falta eskaletako goi-mailetan); beste batzuetan, berriz, EEMBaren berezko helburu edo asmoekin zerikusirik ez zuten alderdiak kritikatzin ziren, adibidez, hizkuntzen hezkuntza homogeneizatzeke asmoa edo hizkuntza-jabekuntzako prozesuak lantzea. Kritika guztiak publikoki eztabaidatu ziren, eta North-ek ohikoenak iruzkindu eta erantzun zituen (2014).

EEMBaren inplementazioari eta benetako eraginari dagokionez, orain arte egindako ikerketek erakusten dute ez direla berdin erabili ebaluazioaren arloan eta irakaskuntza-ikaskuntzaren arloan. Eskoletan, nahiz eta orokorrean mailen “etiketak” erabiltzen diren, ikusten da dokumentua azaletik ezagutzen dela, eta modu partzialean aplikatzen dela programazioetan eta irakaskuntza-ikuspegiatan (Figueras, 2013; Berger, 2018 eta Levy, 2022). Daniel Coste-k (2007) azpimarratzen du zer arazo sortzen zituen mailen “etiketak” EEMBaren gainerako proposamen eta gomendioen gainetik lehenestek.

Ikusita EEMBa kritikak jaso zituela eta haren edukiak ez zirela ondo edo behar beste inplementatzen, Europako Kontseiluak Gobernuarteko Forum bat antolatu zuen 2007an, EEMBaren gaurko eta biharko erabilerak identifikatzeko eta eztabaidatzeko. Forumaren emaitzekin, EEMBaren erabilerari buruzko Gomendio bat egin zen Europako Kontseiluko estatu kideentzat.

Orain arte esandakotik abiatuta, Europako Kontseiluak erabaki zuen EEMBaren edukiak testuinguru makroan birkokatzeko proiektu bat enkargatzea, lehen aipatu dugun diagrama errespetatuko zuena eta jasotako kritikei ahal den neurrian erantzungo ziena.

Hurrengo atalean deskribatzen denez, EEMB LOak —Brian North eta Enrica Piccardok zuzendutako profesional-talde batek egina nazioarteko irakasle eta ikertzaile askoren partaidetzarekin— EEMBaren edukiak lau urtean zehar (2014-2017) berrikusi eta aberastu zituen proiektuaren emaitzak jasotzen ditu. Era berean, saiatu da inplementazioan antzemandako hutsuneak konpentsatzen, batez ere irakaskuntza-arlokoak, eta berrikusi egin da ekintzara bideratutako ikuspegia (2001eko EEMBan ere aipatzen zen). Ekintzara bideratutako ikuspegiak garrantzi handia hartu du EEMB LOan, eta ez bakarrik hizkuntzen erabilera eta ikaskuntza deskribatzeko orduan (EEMB, 2001, 2.1 atala), baizik eta ikuspegia arrakastaz ezartzeko zer behar den eta zer aldaketa egin behar diren aztertzeke orduan ere bai. Piccardok eta Northek (2019) sakon landu dituzte ikuspegi horren azpian dauden nozioak, uste baitute ikuspegi horrek hizkuntzen hezkuntzan paradigma-aldaketa bat dagoela erakusten duela.

## 2. 2014-2017 PROIEKTUA: ASMOA ETA HELBURUAK

EEMB LOaren 1. kapituluak deskribatzen denez, EEMBaren deskriptore argigarriak eguneratzea da proiektuaren xede nagusia, honako helburu hauek lortzeko:

- EEMBaren zenbait arlo berritzaile nabarmentzea; izan ere, 2001ean argitaratutako deskriptoreen multzoan ez zen deskriptore-eskalarik eman, baina azken hogeitun urteetan gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, bereziki bitartekotzak eta eleaniztasunerako/kulturaniztasunerako gaitasunak.
- EEMBa aplikatzearen eta garatzearen ondoriozko emaitzak aprobetxatzea, adibidez, «gehi ikurra»ren mailak zehatzago definitzeko eta «Aurre-A1» maila berri bat gehitzeko.
- Eskaera hauei erantzutea: lehengo eskaletan zehatzago deskribatzea ahozko ulermena eta irakurriaren ulermena, eta deskriptore berriak ezartzea beste komunikazio-jarduera batzuetarako (elkarreraginezko online ekintza, telekomunikazioen erabilera eta sormenezko testuei buruzko iritzi pertsonal bat adieraztea, literaturari buruzkoa barne).

- A1 maila eta C maila gehiago deskribatzea, bereziki C2 maila, deskriptore berriak gehituz.
- Deskriptoreak egokitzea, generoari dagokionez neutro eta "modalitateari dagokionez inklusibo" bihurtzeko (eta, beraz, zeinu-hizkuntzei ere aplikatzeko), batzuetan aditzak aldatuz eta beste batzuetan "Hiztuna/Zeinu-egilea" alternatibak eskainiz.

Aipatutako helburuak betetzeko, egungo deskriptore argigarriak zabaltzeaz gain honako hauek eskaintzen ditu EEMB LOak:

- Deskriptore argigarri berrien eskalak, lehendik daudenekin batera.
- Kategoría bereko eskalak biltzen dituzten taula eskematiko berriak (hizkuntza-aren komunikazio-jarduerak edo gaitasunari buruzko alderdiak).
- Eskala bakoitzerako justifikazio labur bat, zergatik kategorizatu den azalduz.

EEMB LOak, gainera, aldaketa txikiak sartzen ditu deskriptoreen formulazioan, ziurtatzeko generoari dagokionez neutroak eta modalitateari dagokionez inklusiboak direla. 7. eranskinean, 2001ean argitaratutako deskriptoreetan egindako funtsezko aldaketan zerrenda agertzen da.

Hona iritsirik, eta EEMBAk aurkezten dituen berritasunak aurkeztu eta erronka eta aukera posibleak eztabaidatu aurretik (hurrengo ataletan landuko ditugu), garrantzitsua da aipatzea zer prozesu garatu diren EEMB LOaren edukiak prestatzeko eta deskriptore berriak egiteko. Kontrol fonologikoko eskala berriak prestatzeko prozesua Piccardon dokumentatuta dago (2016). Bitartekotza-eskalak garatzeko oinarriak Costen eta Cavallin (2015) deskribatzen dira, eta eskala horiek diseinatzeko eta garatzeko prozesua Northen eta Piccardon zehazten da (2016). Deskriptore berriak egiteari dagokionez, EEMB LOaren 6. eranskinak zehazten du zer prozesu jarraitu den haiek baliozkotzeko eta mailetan ordenatzeko (2001eko EEMBko pautei jarraitu zitzaizen).

Aipatzekoa da, gainera, EEMB LOaren garapen-proiektuarekin batera 7-10 eta 11-15 urteko ikasle gazteentzat egokitutako deskriptoreak bildu zirela (Europako Kontseiluaren webgunean argitaratu ziren, 2018an).

### 3. LIBURU OSAGARRIAREN “BERRITASUNAK”

EEMB LOaren eduki berrien zabalkundea 2017ko irailean hasi zen, orduan argitaratu baitzen lehenengo behin-behineko bertsioa. ALTE, EALTA edo GIELE ebaluatzaileen elkarteak, besteak beste, izan ziren kongresuetan berritasunei buruzko aurkezpenak egiten lehenak, eta, ondoren, argitaletxe nazioartekoenek dokumentua ezagutarazteko mintegiak eratu zituzten. Jarduera horiek Europako Kontseiluak 2018ko ekainean egindako aurkezpen ofizialaren aurretik egin ziren. Harrezkero, dokumentuaren egile nagusiek —Brian Northek eta Enrica Piccardok— eta profesional adituek mintegiak eskaini dituzte, Covid-19aren ondorioz webinario bihurtu direnak. Irakurleak aurkezpen edo webinario horietako asko aurkituko ditu Googlen, dokumentuaren izenaren bidez.

Gaur egun, oraindik informazio gutxi dago EEMB LOak irakaskuntzan duen erabilerari buruz; izan ere, Europako Kontseilua egiten ari den kasu-azterketen bolumena ez da oraindik argitaratu. Ebaluazioari dagokionez —batez ere bitartekotzari dagokionez—, Espainiako hizkuntza-eskola ofizialak beren lanak partekatzen hasi dira, egiaztatze-azterketak urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuan xedatutakora egokitzeko. Errege Dekretu horretan arautzen da bitartekotzak gaitasun orokorren egiaztatze-proben atal bat izan behar duela, beste hizkuntza-jardueren haztapen berarekin:

*Las pruebas de certificación de competencia general estarán compuestas de tantas partes como actividades de lengua se pretende evaluar. A estos efectos, se considerarán como actividades de lengua las recogidas en el currículo básico, a saber, comprensión de textos*

*orales; comprensión de textos escritos; producción y coproducción de textos orales; producción y coproducción de textos escritos; y mediación.*<sup>4</sup>

*En las pruebas de certificación de competencia general, las partes que las constituyen serán ponderadas con el mismo valor, es decir un quinto de la puntuación total por prueba.*<sup>5</sup> (RD 1/219, 4. artikulua).


Jarraian, EEMBaren "berritasunak" deskribatuko ditugu, labur, hiru azpiataletan antolatuta: lehenengoan, EEMBan lehenik dauden alderdiak, EEMB LOak zabaldu eta berrikusi dituenak; bigarrenean, lehenik dauden eskaletan egindako aldaketetan eta gehigarrietan jarriko dugu arreta, eta hirugarrenean, eskala berrietan.

### 3.1. EEMB-A BERRIKUSTEA

EEMB LOaren 1. eta 2. kapituluak irakurriz gero, bai EEMBaren edukiakin gutxi ohituta dagoen irakurleak, bai berriki erabili duenak, EEMB LOaren "berritasunak" ezagutu ahal izango ditu, bai eta 2001ean argitaratutako EEMBaren helburuak eta edukiak berrikusi ere (asko laguntzen dute maketazioa argiak eta grafiko, irudi, ilustrazio edo diagramek).

Adibidez, 2. irudia (EEMB LO, 2. kapitulua) agertzen zen 1996 eta 1998ko EEMBen behin-behineko bertsioetan, baina 2001ekoan ez; beharbada, une hartan ez zitzaion behar besteko garrantzirik eman irudi horrek komunikazioaz adierazten duen kontzepzioari, nahiz eta urte horretako edizioaren 2.1.3. atalean deskribatu edo 7.1 ataleko atazan deskripzioan kontuan hartu. Irudi horretan, komunikatzeko lau moduen arteko erlazioa irudikatzen da: ulermena eta ekoizpena (ahozkoa eta idatzizkoa) eta komunikazioa ahalbidetzeko elkarrekintza eta bitartekotza. 2001eko EEMBak ez zituen trebetasunak aipatzen, jarduerak eta komunikazio-moduak baizik, eta hori alde batera utzi izan da, neurri handi batean, metodologiaren eta ebaluazioaren arloan; EEMB LOak azpimarratu egiten ditu.

2. irudia. *Ulermenaren, ekoizpenaren, elkarreaginaren eta bitartekotzaren arteko erlazioa*




Irakurleak ikuspegi globala izan dezan, EEMB LOak eskalen figurak edo zuhaitzak erabiltzen ditu (3. irudia), laburpen gisa funtzionatzen dutenak erakusteko zer harreman dagoen eskala ezberdinen artean (hizkuntzaren komunikazio-jarduerak, estrategiak, gaitasun eleanitz eta kulturantza, hizkuntzarako komunikazio-gaitasunak eta zeinuhizkuntzetarako gaitasunak).

<sup>4</sup> Ebaluatuko diren hizkuntza-jarduerak adina atal edukiko dituzte gaitasun orokorra ziurtatzeko probek. Ondorio horietarako, hizkuntza-jardueratzat hartuko dira oinarritzko curriculumean jasotakoak, hau da, ahozko testuak ulertzea, testu idatziak ulertzea, ahozko testuak bakarka nahiz beste batzuekin ekoiztea; testu idatziak bakarka nahiz beste batzuekin ekoiztea; eta bitartekotza egitea.

<sup>5</sup> Gaitasun orokorra egiaztatzen probetan, probaren atalak balio berberarekin haztatuko dira, hau da, proba bakoitzari guztizko puntuazioaren bostena emango zaio.

Gai kontzeptualagoi dagokienez, EEMB LOak ekintzara bideratutako ikuspegia azpimarratzen du, arestian aipatu dena, EEMBaren ikuspegiak eta proposamenek irakaskuntzan eta ikaskuntzan eragin handiagoa izan dezaten lortzeko, eta azpimarratzen du ikaslea beti izan behar dela ikaskuntza-prozesuaren erdigunea, eta gaitasunak bere beharren eta borondatearen arabera garatu ahal izan behar dituela. Northek eta Piccardok (2019) EEMBan adierazitakotik harago zabaltzen dituzte ekintzara bideratutako ikuspegiak hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arloan dituen inplikazioak.

3. irudia. EEMB LOaren eskema deskribatzailearen egitura



3.2. EEMB LO-AREN ALDAKETAK 2001EKO EEMB-ARI DAGOKIONEZ

Aldaketarik garrantzitsuenak deskriptoreetan ikusten dira (EEMB LOaren irakurleak horien zerrenda zehatza aurkituko du 7. eranskinean). 2014-2017 proiektuaren asmoaren arabera, EEMBaren oinarriak ez ziren berrikusi behar, eguneratu baizik, eta aldaketa gehienek helburua izan da jatorrizko hiztunari lehia-eredu gisa egiten zitzaion erreferentzia oro kentzea eta eskala batzuetako termino absolutuak moderatzea. Adibide gisa, aldaketa garrantzitsuenen bi adibide sartu dira. Letra etzanez, aldaketak dituzten deskriptoreak:

1. taula.

Entzutezko ulermen orokorra/ Ahozkoaren ulermena, oro har
Gai da ahozko edozein hizketa ulertzeko, baita ama hizkuntza dutenen lastertasunean esana bada ere, aurrez aurreko elkarrizketetan nahiz hedabideetatik datozenetan.
Gai da edozein ahozko/hitzezko diskurtsoa erraz ulertzeko, baita abiadura naturalean esana bada ere, aurrez aurreko elkarrizketetan nahiz hedabideetatik datozenetan.
Ama hizkuntzan diharduen hiztunari ulertzea / Solaskide bati ulertzea
Gai da edozein solaskideri ulertzeko, ama-hizkuntzan ari denari barne, baita gai abstraktu edo gai espezializatu konplexuei buruz eta bere espezialitateaz haragoko gaiez badihardu ere, baldin eta hizkuntza edo azentu ez estandarrera ohitzeko modua badu
Gai da edozein solaskideri ulertzeko, baita gai abstraktuei buruz edo gai espezializatu konplexuei buruz eta bere espezialitateaz haragoko gaiez badihardu ere, baldin eta ezagutzen ez duen aldaerara ohitzeko modua badu.



### 3.3. ESKALA BERRIAK

EEMB LOak 35 eskala berri ditu, eta horietatik 24 bitartekotzarako dira; horretaz gain, zeinu-hizkuntzarako deskriptoreak dituzten eskala espezifikoak jasotzen ditu (irakurleak EEMB LOaren 6. kapituluari kontsulta ditzake).

Aipatutako 35 eskala berrien ikuspegi orokorra emateko asmoz, 2. taulan azaltzen da nola antolatu diren eskala horiek.

#### 2. taula

Online elkarreragina
Online elkarrizketak eta eztabaidak
Online transakzioak eta elkarlana
Ahoskeraren kontrola
Ahoskeraren kontrol orokorra
Artikulazioa
Prosodia
Plazer soilagatik irakurtzea
Bakarriketa jarraitua: informazioa ematea
Bitartekotza
Testuen bitartekotza
Kontzeptuen bitartekotza
Komunikazioaren bitartekotza
Bitartekotza-estrategiak
Gaitasun eleanitza eta kulturantza
Errepertorio eleanitzean oinarritzea
Errepertorio kulturantzean oinarritzea
Ulermen eleanitza

Puntu honetan, gogoratu behar dugu eskala- eta deskriptore-ugaritasun hau erabiltzaileek eskura dituen aukera anitzen abanikotzat hartu behar dela, erabiltzaile bakoitzak aztertu eta erabaki behar baitu zer den garrantzitsuena bere testuinguruan. Horri dagokionez, interesgarria izan daiteke EEMB LOaren 2.7 atala kontsultatzea; bertan, eskaintza zabal hori justifikatzen da, eta profil berezien baliagarritasuna azpimarratzen:

EEMBak horregatik proposatzen ditu deskriptore-eskala asko, hartara erabiltzaileek profil ezberdinak garatu ditzaten. Deskriptore-eskalak erabili daitezke, lehenik, ikasle-talde jakin batentzat garrantzitsuak diren hizkuntza-ekintzak identifikatzeko, eta, bigarrenik, ezartzeko ea erabiltzaile horiek zer maila lortu behar duten ekintza horietan baldin eta beren helburuak lortuko badituzte

EEMB LOaren eskala berriek XXI. mendeko komunikazio-beharrei erantzuten diete (elkarreraginezko online ekintza), gehiago zehazten dituzte 2001eko EEMBan aipatu baino egin ez ziren oinarri kontzeptualak (plazer soilagatik irakurtzea, bakarriketa jarraitua: informazioa ematea) edo lehenik dagoen eskala bat nabarmen hobetzen dute (kontrol fonologikoa). Gainera, 2001eko EEMBan dauden jarduerak (bitartekotza) eta gaitasunak (eleanitza eta kulturantza) operazionalizatzen dituzten eskalak sartu dira (jarduera eta gaitasun horiek ez zeuden mailen arabera deskribatuta, eta, beraz, ez zuten eskala espezifikorik).

Orain arte arreta gehien jaso duten eskalak bitartekotzakoak dira, berriak baitira; izan ere, bitartekotzaren kontzeptuak asko eboluzionatu du 2001eko EEMBan deskribatutako parametroetatik, honetara mugatzen baitzen:

Bitartekotza-jardueren adibide dira ahozko interpretaritza eta idatzizko itzulpena, eta baita hizkuntza berean egindako laburpena eta parafasia ere, hartzaileak jatorrizko testuko hizkuntza ulertzen ez duenean (EEMB, 2001, 4.4.4 atala).

EEMB LOak bitartekotzaz egiten duen interpretazioa Costek eta Cavallik 2015ean egingandako lanean oinarrituta dago. Honela deskribatzen dute: alteritate-polo biren (edo gehiagoren) arteko distantzia murrizteko diseinatutako edozein prozedura, antolaketa edo ekintza.

Costeren eta Cavallirentzat eta EEMB LOarentzat, bitartekotzari esker:

- ezagutza eskuratzen da;
- tentsioak eta blokeo afektiboak murrizten dira;
- berriranzko zubiak eraikitzen dira, bestearengana iristeko.

Honela deskribatzen du EEMB LOak “bitartekotza”:

Bitartekotzan, ikasle edo erabiltzaileak eragile sozialaren funtzioa betetzen du, zubiak eraikiz eta esanahia eraikitzen edo adierazten lagunduz; batzuetan, hizkuntza baten barruan dihardu, beste batzuetan, berriz, bi hizkuntzen artean egiten ditu zubiak (hizkuntzen arteko bitartekotza). Bitartekotzan aztertzen da hizkuntzak zer zeregin betetzen duen era askotako prozesutan, adibidez, komunikatzeko edota ikasteko espazioak eta baldintzak sortzeko prozesuan, esanahi berriak sortzeko elkarlanean, beste batzuei esanahi berriak eraiki edo ulertzen laguntzeko prozesuan, eta informazio berriaren adierazpen egokian. Bitartekotza-ekintzak era askotako arlotan gerta daitezke: gizartean, hezkuntza-arloan, kulturean, hizkuntzaren testuinguruan edo lan-arloan (EEMB LO, 3.4 atala)

Irakurleari gomendatzen diogu “Bitartekotza, oro har” eskala erabil dezala bitartekotza- eskalen multzorako sarrera gisa; izan ere, eskala horretako deskriptoreek erakusten dituzte (eta integratzen) bitartekotza-mota guztiak (testuenak, kontzeptuenak, komunikazioarenak eta bitartekotza-estrategienak), eta lehen ikuspegi bat eskaintzen dute jakiteko zer inplika dezakeen eskala horiek ikasgelan, ebaluazio- zein irakaskuntza-testuinguruetan, aplikatzeak. Lehen irakurketan, aholkatzen dugu bitartekotza mota guztiak identifikatzen saiatzea, eta gero hausnartzea zer toki izan dezaketen —edo duten— irakurlearen testuinguruan (ikaskuntza, irakaskuntza, ebaluazioa) eta zer aldaketa edo zailtasun aurreikus daitezkeen haien aplikazioan.

### 3. taula. “Bitartekotza, oro har” eskalako B2 mailako deskriptorea EEMB LOan, 3.4.1 atala)

Gai da babes-giro bat eratzeko, bertan ideiak konpartitu daitezen eta gai delikatuak buruzko elkarrizketak gerta daitezen, ikuspegi ezberdinen balioa adieraziz, jendeari adorea emanez dena delako gaiak buruz pentsa dezaten eta gauzak adierazteko bere modua sentikortasunez egokituz. Gai da besteen ideiak abiapuntu hartuta gauza eraikitzeke, eta aurrera egiteko balio duten iradokizunak egiteko. Gai da ongi egituratutako testuen eduki nagusia azaltzeko, testu luzeak eta helburuaren aldetik konplexuak izan arren, baldin eta bere interesekoak badira lanagatik, ikasketengatik edo maila pertsonalean, eta gai da hiztunen iritziak eta helburuak argitzeke.

Gai da elkarlanean jarduteko jatorri edo eremu ezberdinetako jendearekin, eta giro positibo bat sortzeko, babesa emanez, helburu komunak identifikatzeko balio duten galderak eginez, helburu horiek lortzeko moduak konparatuz eta hurrengo pausoei buruzko iradokizunak azalduz. Gai da beste pertsona batzuen ideietan sakontzeko, galderak egin eta hala beste ikuspegi batzuk azaleratzeko, eta konponbideak eta etorkizuneko urratsak proposatzeko. Gai da informazio eta argudio xeheak ziurtasunez emateko, adibidez, ongi egituratutako testu konplexuetan biltzen diren ideia nagusiak, betiere bere lanbidearekin, ikasketekin edo arlo pertsonalarekin zerikusia badute,

EEMB LOaren 5. eranskina, “Elkarreraginezko online ekintzetarako eta bitartekotza-ekintzetarako deskriptoreak hainbat arlotan erabiltzeko adibideak”, oso lagungarria izan daiteke eskala berriak martxan jartzeko eta irakaskuntzarako eta ebaluaziorako materialak diseinatzeko; izan ere, zein den ikasleentzako eremu garrantzitsuena (pertsonala, publikoa, laborala edo hezkuntzako), horren arabera proposatzen ditu jarduerak.



EEMB LOa hobeto ezagutu nahi dutenek hainbat tresna eta ekimen dituzte eta izango dituzte beren eskura, deskriptoreekin lan egiteko oso baliagarriak izan daitezkeenak. Europako Kontseilutik argitaratutako en artean daude: deskriptore egokitzailen bankua, Europako Kontseiluaren webgunean online kontsulta daitekeena (nahiz eta oraingo ingelesez soilik), eta *CEFR CV Implementation Toolbox* proiektua, Grazeko Hizkuntza Modernoen Zentroaren (ECML) gidaritzapean prestatzen ari dena <sup>6</sup> Hezkuntza-arloko profesionalek bultzatutako ekimenen artean, aipatzekoa da laster argitaratuko dela *Aligning language education to the CEFR: a Handbook* eskuliburua. Argitalpen honek irakaskuntzaren, curriculum diseinuaren eta ebaluazioaren arloko profesionalen lankidetzan izan du, eta Londresen, 2020ko otsailean, British Council-ek bultzatutako eta EALTA eta UKALTA antolatutako mintegiaren ondorioen emaitza da. Mintegi hartan, erabaki zen gida-dokumentuak behar zirela curriculumak, metodologiak eta ebaluazioa EEMBaren printzipio, gomendio eta mailekin lerrokatzeko.

## 4. AUKERAK ETA ERRONKAK

Ukaezina da EEMB LOaren argitalpena pizgarria izan dela hizkuntzen hezkuntzaren arloan, bai dituen berritasunengatik, baina baita EEMBan 2001. urtean jada aipatutako gaiak berriz planteatzea lortzeagatik ere, agian ez baitziren behar bezala ulertu edo landu, irakaskuntzaren arloan batez ere.

EEMB LOa behin-behinean argitaratu zenetik igarotako hiru urteetan, biderkatu egin dira dokumentuaren edukiak zabaltzeko jarduerak eta dokumentuak. Erreakzioak, oro har, oso positiboak izan dira, nahiz eta dokumentuaren proposamenen inplementazioa hasierako fasean dagoen oraindik ere, aldaketak praktikan jartzean gertatu ohi den bezala. Urte batzuk itxaron beharko ditugu EEMB LOa balioetsi eta baliozkotu ahal izateko beharrezko diren kasu-azterketak eta jardunbide egokien adibideak eskuratzeko. Hala ere, bai aurreikus daiteke, dokumentua argitaratu eta hiru urtera, zer aukera eta erronka planteatu ditzakeen EEMB LOa irakaskuntzan eta ebaluazioan aplikatzeak. Jarraian ikusiko ditugu.

### 4.1. AUKERAK

EEMB LOan, baliabide asko agertzen dira, eta informazio-iturri aparta eskaintzen diote bai irakasleari, bai ebaluatzaileari. Informazio hori berehala erabil daiteke 1. eta 2. kapituluak irakurrita, eta horrek, esan bezala, EEMBarekin egindako lana berrikusteko aukera ematen du. Lehen kapitulu horiek balio dezakete, halaber, nahikoa landu ez diren gaiak gogorarazteko, eta profesioan berriak direnentzat, berriz, baliagarriak izan daitezke Europako Kontseiluak egindako lanaren berri izateko. Ez dago zalantzarik zein izango den datozen urteetan hizkuntza-mintegi edo -departamentuetako bileretako eztabaiden erdigunea: nola ziurtatu ikasgeletan ekintzara bideratutako ikuspegia, nola igaro lau "trebetasunetatik" (irakurmena, ahozko ulermena, idatzizko ekoizpena eta elkarreragina eta ahozko ekoizpena eta elkarreragina) lau komunikazio-moduetara (ulermena, ekoizpena, elkarreragina eta bitartekotza).

Eskala berri batzuk eta lehendik dauden eskaletako deskriptore berri batzuk ere oso baliagarriak dira, eta berehala erabiltzekoak. Dagoeneko lan egiten duten edo zeregin integratuetan interesa duten irakasleek edo ebaluatzaileek beren testuinguruan oso garrantzitsuak diren bitartekotza-eskala asko aurkituko dituzte, baita CLIC edo EMI testuinguruetan lan egiten dutenek ere. Ahozko hizkuntzaren alderdian interesa duten irakurleek ere beren praxia hobetu ahal izango dute, kontrol fonologikoko eskalak irakurri; beren ikasgeletan hizkuntza-aniztasunaz kezkatuta dauden irakurleek, halaber, laguntza kontzeptuala eta praktikoa aurkituko dute irakaskuntza ikasleek beharretara egokitzeko moduari buruz, eta eleaniztasunari, kultura-aniztasunari eta abarri dagozkien eskalak erabili ahal izango dituzte.

<sup>6</sup> <https://www.ecml.at/ECML-Programme/Programme2020-2023/CEFRCompanionVolumeimplementationtoolbox/tabid/4299/language/en-GB/Default.aspx>

EEMB LOa bezalako dokumentu zabal batek asko eskaintzen dio erabiltzaile motibatuari, batez ere gai bada bereizteko zer den berehala erabil daitekeena eta zer eztabaida eta denbora eskatzen duena, zer den garrantzitsua bere testuinguruan, eta zer ez.

#### 4.2. ERRONKAK

EEMB LOak aurkezten dituen aukerak baliatzeak hiru urrats desberdin eskatzen ditu: dokumentua zabaltzea eta harekin ohitzea, zer erabili behar den hautatzea kontuan hartuta zer den garrantzitsua testuinguru bakoitzean, eta hautatutakoa egokitzea edo lokalizatzea. Hiru urrats horiek testuinguru bakoitza modu zehatzean aztertzea eskatzen dute, eta eskura dauden baliabideak ebaluatzea eta egutegi errealista bat egitea. EEMB LOra zuhurtziaz hurbildu behar da, Antonio Machadoren esaera gogoratu: *Despacito y buena letra: / El hacer las cosas bien / importa más que el hacerlas*<sup>7</sup>.

Curriculum, material, metodologia eta ebaluazio diseinatuak duten profesionalak, edozein dela ere haien eginkizuna eta erantzukizun-maila, EEMB LOari egindako lehen hurbilketan konturatuko dira LOan agertzen diren proposamen guztiek ez dutela garrantzi bera arlo guztietan. Esate baterako, curriculum bat egiteko ardura dutenek oso baliagarriak izango dituzte dokumentuaren oinarri kontzeptualak eta komunikazio- edo hizkuntza-gaitasunen eta mailen arabeko estrategien deskribapena; materialen egileek, aldiz, ziur asko deskriptoreak erabiliko dituzte batez ere, lagungarriak izango baitzaizkie zereginak elaboratzeko. Era berean, irakasle batentzat oso eskala baliagarriak izan daitezke “Errepertorio eleanitzean oinarritzea”, “Errepertorio kulturantzian oinarritzea” eta “Ulermen eleanitzea”, batez ere ikuspegi metodologikoei edo, are, gelako ebaluazioari dagokienez; ordea, egiaztatze-probak egiteko ardura duenak zailtasunak izan ditzake gaitasun horiek neurtzeko orduan (Berger, 2018).

### 5. ETA BUKAERA GISA, GALDERA BATZUK

Puntu honetan, irakurlea estu sentitu daiteke EEMB LOaren zabaltasunagatik eta ekarpenengatik eta hizkuntzen ikaskuntzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan izan ditzakeen inplikazioengatik.

Hasteko, kontuan hartu behar dugu zer ibilbide duten honelako dokumentuek. EEMBaren lehen bertsioa 2001ean argitaratu zen, baina haren behin-behineko bertsioa (1996 eta 2001) aurretik ezagutzen zen hainbat zirkulutan, eta, nahiz eta bibliografia eta ikerketa ugari sortu, EEMBak eztabaidak pizten ditu oraindik ere. Pentsatzekoa da EEMB LOak ere antzeko ibilbidea egingo duela, eta haren edukiak ikertu, egokitu, zalantzan jarri eta kritikatuak izango direla EEMBarenak izan ziren bezalaxe.

Espero da, beraz, luze joko duela EEMB LOaren asimilazio- eta erabilera-prozesuak, eta bide horretan erabiltzaileek hainbat kontu gutxi-asko praktiko konpondu beharko ditzutela; horietako batzuk publikatuta daude dagoneko (Little 2018), eta hauek dira:

- Erantzungo al die EEMB LOak 2001eko EEMBari egin zaizkion kritikei?
- Lortuko al dute irakaskuntzan benetan eragin handiagoa izatea EEMB LOaren edukiek eta ekintzara bideratutako ikuspegiari ematen zaion garrantziak? Horetako al dira ikaskuntzak?
- Zer baliabide eta egutegi aurreikusi behar dira EEMB LOaren proposamenak implementatzeko? Zer zailtasun ager daitezke? Material osagarriak beharko dira?
- Nola operazionalizatuko da “lau trebetasun”etatik lau komunikazio-bideetarako urratsa? Aldeak egongo al dira irakaskuntzaren eta ebaluazioaren artean?
- Zer jarduketa egin beharko lirakeke Liburu Osagarria irakasleentzat eskuragarriago egiteko?

<sup>7</sup> Poliki eta letra onarekin: garrantzitsuagoa da gauzak ondo egitea egitea bera baino.

Zer erabiltzaile eta testuinguru izan eta zein diren horien ardurak, horren arabera erantzungo zaie galdera horiei, eta beste galdera asko sortuko dira. Bistan da EEMB LOa ez dela berdin erabiliko irakaskuntzan eta ebaluazioan, eta erabilera guztiak ezin izango direla testuinguru guztietan inplementatu; hala, lehendabizi erabilera bakoitza zer den ulertu eta aztertu beharko da, eta gero testuinguru bakoitzean egin beharreko egokitzapenak egin. Alderdi horri dagokionez, eta kontuan hartuta zer konplexutasun duen dokumentuak, jarduketa guztiak dokumentatu beharko lirateke (ikerketak zientifikoak, jardunbide egokien zabalkundea, kasu-ikerketak...), datozen urteetan hizkuntzen irakaskuntza eta ebaluazioa markatuko duten eztabaida eta debateetarako laguntza-puntuak eta argudioak izateko.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

**Bibliografia eta erreferentziak**

- Berger, A (2018). What can the new “can do” descriptors can do for assessment? In D. Little, *The CEFR Companion Volume with New Descriptors: Uses and Implications for Language Testing and Assessment* (7-8. or). Vith EALTA CEFR SIG. Trinity College Dublin.
- Council of Europe (2008). *Recommendation CM/Rec(2008)7 to member states on the use of the Council of Europe’s “Common European Framework of Reference for Languages” (CEFR) and the promotion of plurilingualism*. [https://search.coe.int/cm/Pages/result\\_details.aspx?ObjectId=09000016805d2fb1](https://search.coe.int/cm/Pages/result_details.aspx?ObjectId=09000016805d2fb1)
- Council of Europe (2018) *Collated Representative Samples of Descriptors Of Language Competences Developed For Young Learners (Ages 7-10, and Ages 11-15)*. <https://www.coe.int/en/web/common-european-framework-reference-languages/bank-of-supplementary-descriptors>
- Council of Europe. (2020). *Common European Framework of Reference for Languages – Companion Volume*. Council of Europe Publishing. <https://rm.coe.int/common-european-framework-of-reference-for-languages-learning-teaching/16809ea0d4>
- Coste, D (2007). *Contextualising uses of the CEFR*. <https://rm.coe.int/contextualising-uses-of-the-common-european-framework-of-reference-for/16805ab765>
- Coste, D. eta Cavalli, M (2015). *Education, mobility, otherness The mediation functions of schools*. Council of Europe. <https://rm.coe.int/education-mobility-otherness-the-mediation-functions-of-schools/16807367ee>
- EALTA- UKALTA (2020, otsailaren 7a eta 8a). *The CEFR: towards a road map for future research and development*. [Txostena]. EALTA eta UKALTA-k babestu eta British Council-ek antolatutako mintegia. [https://www.ealta.eu.org/documents/EALTA\\_UKALTA\\_CEFR\\_report\\_final.pdf](https://www.ealta.eu.org/documents/EALTA_UKALTA_CEFR_report_final.pdf)
- Europako Kontseilua. (2005). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. HABE-Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. (Jatorrizko lana 2001ean argitaratua). [http://www.irakasbil.eus/argitalpenak/europako\\_erreferentzia\\_marko\\_bateratua](http://www.irakasbil.eus/argitalpenak/europako_erreferentzia_marko_bateratua)
- Figueras, N, (2013) *The impact of the CEFR in Catalonia*. APAC Monographs, 9.
- Figueras, N. eta Levy, M. The action-oriented approach in the CEFR and the CEFR Companion Volume: a change of paradigm(s)? A case study from Spain. In D. Little eta N. Figueras, N. (Ed.) *The Common European Framework of Reference for Languages: Towards a Road Map for Future Research and Development*. Multilingual Matters. Prentsan.
- Fulcher, G. (2004). Deluded by Artifices? The Common European Framework and Harmonization. *Language Assessment Quarterly*, 1(4), 253-266. doi: 10.1207/s15434311laq0104\_4
- Little, D. eta Figueras, N. *The Common European Framework of Reference for Languages: Towards a Road Map for Future Research and Development*. Multilingual Matters. Prentsan.
- Little, D. (2006). The Common European Framework of Reference for Languages: Content, purpose, origin, reception and impact. *Language Teaching*, 39(3), 167-190. doi:10.1017/S0261444806003557
- Little, D. (2018, ekainaren 27a) *The CEFR Companion Volume with New Descriptors: Uses and Implications for Language Testing and Assessment* [Txostena]. Vith EALTA CEFR SIG Trinity College Dublin.
- North, B. (2014) *The CEFR in Practice*. Cambridge
- North, B. eta Piccardo, E. (2016). *Developing illustrative descriptors of aspects of mediation for the CEFR*. Council of Europe. <https://rm.coe.int/common-european-framework-of-reference-for-languages-learning-teaching/168073ff31>
- Piccardo, E. (2016). *Common European Framework Of Reference For Languages: Learning, Teaching, Assessment Phonological Scale Revision Process Report*. Council of Europe. <https://rm.coe.int/phonological-scale-revision-process-report-cefr/168073fff9>
- Piccardo, E. eta North, B. (2019). *The Action-oriented Approach: A Dynamic Vision of Language Education*. Multilingual Matters.
- Real Decreto 1/2019, de 11 de enero, por el que se establecen los principios básicos comunes de evaluación aplicables a las pruebas de certificación oficial de los niveles Intermedio B1, Intermedio B2, Avanzado C1, y Avanzado C2 de las enseñanzas de idiomas de régimen especial. *Boletín Oficial del Estado*, 2019ko urtarrilaren 12koa, 2260-2268. <https://www.boe.es/eli/es/rd/2019/01/11/1>